

Kanalak

Kanalen barnean, honako alderdiak bereizten dira, komunikazio-kanalak, banaketa-kanalak eta salmenta-kanalak. Kasu guztietan, bezeroarekiko harreman-puntuak dira, kanal bat osatzen duten bost fase bereziak zehazten dituztenak. Hurrengo hauek dira aipatutako bost faseak, pertzepzioa, ebaluazioa, erosketa, entrega eta salmenta ondorengoa.

Beste alde batetik bi kanal mota nagusi bereizten dira, alde batetik kanal zuzenak, gure kasuan gure lokal fisikoa edo web orrialde izango litzateke, bertatik gure produktuak salduko ditugulako. Azkenik, zeharkako kanalak aurkitzen ditugu, baita ere denda fisikoak izango dira baina gure enpresa ez den beste denda bat, hau da, gure produktuak saltzen dituen kontratatutako lokal edo enpresaren bat.

